

Jakin dakidaz

Bibiñe PUJANA, Luis K. ABEAL

Betiko moduan eskola umeak eskolatik urten, euren olgetak egin, jesarri eta barriketan hasi dira:

—Behin baten, nire aitak, artoak jorratuteko garaian, kereixa denporan, txori bizi-bizia eskuekaz harrapatu eban —inoan Asierrek.

—Hori ezin dok izan —erantzun eutsan albotik Kepak—. Txoriak harrapatzeko eskopetea behar dok.

—Ez —erantzun eutsan Asierrek—, gure aitak beste era batera harrapatzen dauz. Entzun adi:

«Txusoa» balitz lez soloan jartzen da, esku bata zabalik buruan txapelpean ipinita. Txapel gainean hiru-lau arta-garau ipinten dauz. Txoriak lehenengotan ausartu ez arren, apurka-apurka bildurra kendu eta garauak jateko txapel gainean jartzen dira. Orduan aitak eskua itxi eta ras... zozoa harrapatuta.

—Ba!, hori ez dok ezer —dino «Gortazargo» Felixtxok, Asierren handikeria entzuterakoan—. Gure etxean behin handiagoa jazo zan.

—Zer?, Felixtxo —dinotsie danak batera.

—Ba... baten gure txakurra buztana eragin eta eragin kortarantz joan zan. Aita, barriz, atzetik atzetik zer ete da eta zaszt! basurdekumea kortako sanean.



JIE 58E-84

IKASTY



Ja, ja, ja,... Felixen «sinistu ezinekoa» entzutera-koan ume guztiak barreka hasi dira.

Mutikoak barreka eta barriketan dabilzala eleizako do-
rrean kanpaiak «abemariak» jotzen hasi dira, eta bata bes-
tea baino bizkorrago euren baserrietarantz abiatu dira.

Felixtxok, bakar bakarrik, Gortazargo bidea hartu
dau. Bide ziorretik zehar burua makurtuta doa hurrengo
egunean lagunei «ze handikeri» esan pentsetan. Eta kon-
turatu barik etxera heldu da.

—Ia Felixtxo —esan deutso amak kortako atetik—
karrajuko atostean zorroa itzi, amantala ipini eta altzoka-
da bat batzean «muneganeke» kereixara bizkor joan zai-
tez.

«Aitien eta Semien» egin ordurako Felixtxok Kerei-
xondora igon dau. Bizkor hasi da lanean, «batu eta jan»,
«batu eta jan». Behar hau egiterakoan ere, bidean ekarri
dauan ametsa buruan erabili dau.

Bere lagunei hurrengo egunean ze handikeri esango
deutse?

—A, badakit, txiki denporan gure amak kontatzen
euskuna apur bat aldatuta.

Altzokada kereixa amantalean eta sabela bete-bete
eginda, Felixtxo zugaitzetik jatzi da. Etxera joan, kerei-
xak apurtu eta ximeldu ez daitezcan galbaian ipini, oilote-
giko atea itxi, gaueko otoitzak egin, afaldu eta oheratu
da Felixtxo.

Gaba guztian lo gogorrean egon eta eguzkiaren izpiak
leiho bitartetik sartzen hasi diranean bizkor jagi da gure
mutila ohetik.

Esne-sopaz bete-bete egin eta eskolarantz bizkor doa.

—Hi, Asier! —deitu deutso urrunetik— etsoik; beste gertakizun harrigarri bat bajakiak.

Felixen abotsa danak entzun dabe eta, Asier bakarrik ez, baita Kepa eta beste guztiak ere beraganantza bizkor etorri dira.

—Zer da?, zer da?

—Ba, behin baten —hasi da Felix abots sendoz— gure amak Kereixako haitzean katu bat itzi eta «justo, justo», bost minutu barru, Zuloan agertu zan. Hiru kilometro 5 minutoan.

—Hori, entzun dodanik eta astakeririk haundiena dok —nahiko hasarratuta Asierrek esan deutso.

—Ez, egia dok. Entzuik arrazoia: Kereixako haitzean karkaba asko jagozak, ez dok?

—Bai, halantxe dok.


—Eta karkaba horreek sakon sakonak dozak, ez dok?

—Bai, harria bota eta luzaroan jausten egoten dok.

—Ba arrazoia, oraintxe heuk emon deustak. Katua halako karkaba baten sartu eta haitz zulo korretatik Zuloaraino etorri zoen.

Une batean danak ixilik gelditu dira, karkaba horreen ezkutapenak (misterioak) aztertzen. Gero, Asier bere aititaren aitari jazo jakona kontatzen hasi jake.

—Beste baten, gure aititaren aitak erbia bizi bizirik harrapatu eban.



—Azaldu eik ba, laster eskolara joateko ordua dok eta.

—Ba, gure aititaren aita Jauntxo baten morroi egoan. Jauntxoa «mizke» hasitakoa zan eta «txibizkeriak» jatea guztatzen jakozan: Antzarren arrautzak morrokotan egin-da, eperren garaunak burruntzian erreta, ardi esneaz egin-dako morokila eta abar eta abar.

Behin, berak bizirik ikusitako erbia jan behar ebalagogoratu jakon. Horrexegaitik, agindu eban morroia, gure aititaren aita, basora, bizirik ekarteko gero!, agindugogor zorrotza emonda.

Basoko bideziorretatik zehar, han joian aititaren aita erbiori zelan harrapatu pentsatzen. Halako baten, pago baten ondoan zigarro bat egiten hasi zan. Berehala, erbia beraganantz etorten ikusi eban.

—«Txusoa» banintz legez geldi egongo nok —pentsau eban bere arterako.

Erbiak, tipi-tapa, belarriei ikerarik egin barik, bere alboraheldu zanean ezkerreko hanka altxatu, txise egin eta aurrera egin eban.

—Harrapatuko dot ba!, inoan bere arterako aititaren aita.

Erbia bedarpera sartzen ikusi ebanean, lepoan eskegita eukan euritakoari alanbrea kendu, puntea zorroztu eta gezia laster gertau eban.

Erbiak eroian bidean pago asko egozan, eta halakopago lodi baten ondoan azanaori eder bat ipini eban. Azanaori honen usainera erbia, belarriak artez-artez ipinita,

arin hurreratu zan. Jaten hasi zanagaz batera, aiteitaren aitak gezia jaurti eta erbia zugaitzera belarrietatik josita ipini eban. Gero, zapata kordela samatik lotu eta asto bat bezela bere ugazabari eroan eutsan.

Honek poz handia hartu eban bere morroi zintzoak erbia bizirik ekarrela ikusi ebanean.

«Beste barik» jatea tamala emoten eutsan eta harroa zan legez bere lagunen aurrean «ehiztari trebe» moduan gelditu behar ebala gogoratu jakon.

—Zelan egingo ete joagu —itaundu eutsan bere morroiari— nire lagunen aurrean eskopetaz erbia neuk hiltzeko? Punteri oso txarra jaukat eta... tamalgarria izango dok erbiak alde egin eta laban erreta jan ezin izatea.

—Ez estutu Jauna —erantzun eutsan aiteitaren aitak— hori ere konponduko dogu.

Aiteitaren aitak berehala pentsau eban joko. Lehenengo zeregina, nagusiaren ortuan erbiak ugaritu zirala esatea zan, gero arrankariak harrapatzen erabilten dan zedazko hariaz erbia hankatik zugaitzera lotutea.

Aiteitaren aitak «doministiku» bi egingo ebazan eta erbia azapetik arineketan joango zan (hankako haria inork ez eban ikusiko), orduan ugazabak tiro bigaz errez hilgo eban. Gero inork ikusi orduko aiteitaren aitak kordela kenduko eutsan.

Dana gertatu eban ba pentsatutako moduan eta ospakizun honetarako «urlien» eguna ipini eban.

Egun hori heldu zanean herriko jauntxo guztiak han bildu ziran. Aiteitaren aitaren ugazaba inoiz baino dotoreago egoan, eskopeta dizdiratsua sorbalda gainean ipinita.



JESSE-84

Joan ziran ba ortura eta... «doministiku» bi entzun ziran, gero erbia azapetik arineketan ikusi eben. Berehala bota eutsazan gure aititaren aitaren ugazabak tiro biak baina... zelako larritasuna!, erbiak errasturik itzi barik alde egin eban. Tiroa heldu zan lekuan zedazko haria eta erbiaren hankako lumak egozan.

Hango barre, oihu eta adar joteak «azken bakoak» ziran.

—Arraioia!, inoan aititaren aitak, hasarratuta.

Zortzi egun egon ei zan jauntxoa kamaran lotsatuta. Aititaren aitak barriz bitartean inoiz baino perretxiko eta arto zopa gozo gehiago iruntzi ei ebazan.

—Eta gero zer?, —dino Felixtxok gehiago jakin gararik.

—Ba hortxe amaitu dok, —dinotso Asierrek—. Ez dok harrigarria izan ala?

—Bai, —erantzun dabe guztiak batera.

Urrinean eskolara sartzeko ordua dala adierazten dauan txilina entzun dabe eta bizkor joan dira gauza bariak ikasten.